

LAKABEKO ESPERIENTZIAREN AZTERKETA

-Zeintzuk dira Lakabeko komunitatearen ezaugarriak? (kokagunea, antolakuntza modua biziaren eremu ezberdinetan, etab.)

Lakabe komunitatea, geografikoki, Nafarroan kokatzen da, Artzibarreko ibarrean. Komunitate honek, 1980.urtean du sorrera, Lakabe herriaren okupazioa ematen den urtean. Beraz, komunitate okupatua eta autogestionatua da. Komunitate honetan, asanblada bidezko antolakuntza mota daukatela esan dezakegu. Hau da, Lakaberen inguruan hartu beharreko erabaki oro, bertako kide guztiak parte hartzen duten asanblada horretan hartzen dira, edota elkarbizitzarako gutxiengo irizpide batzuk jartzeaz ere arduratzen da asanblada. Hasiera batean, erabakien gaineko konsensu erreala bat edukitzea eta erabakiak hartzea zaila dela diote bertako kideek, arrazoituz jende desberdin asko dagoela. Asterokotasunean egiten dute bilera, gai ezberdinen inguruan haien iritzia emateko espazio bat da, zeinetan adina ez den muga bat bertan hitz egiteko. Adin desberdinetako jendea bizi dan Lakaben, eta hau aberasgarria dela uste dute bertako kideek. Komunitatean bertako antolakuntza modua horixe da, baina Lakabek, beste herri batzuekin batera, ekoaldea osatzen dute: Artze, Longida eta Aizkurgi.

Aipatzekoa da ere, komunitatean bertan dagoenaren bitartez bizi direla, bai energiari dagokionez edota janariari dagokionez, orokorrean ekonomikoki, komunitatetik haratago lan egiteko beharrik ez daukate (bertako okindegiko ogia saltzea eta, komunitateko kideren batek, norberaren hautu profesional gisa komunitatetik kanpo lan egitea erabakitzen ez badu).

-Zer printzipio eta baloretan dago oinarrituta?

Ekoaldea bat den heinean, daukaten printzipio garrantzitsuenetakoa, ekologiaren ingurukoa da. Bertara joan zirenean, jadanik finkatuta zegoen balore bakarrenetakoa zen. Izan ere naturaren erritmora bizi, eta lurrak emandakoaz bizitzea da haien helburua, eta honi berebiziko garrantzia ematen diote.

Honetaz gain, komunitate filosofia dute, eta beraz, komunitate gisa, funtzionamendu sano eta optimo bat lortu nahi dute: zentzu honetan, asanblada bidezko antolakuntza bat daukate. Pertsonaren barrualdeari ere garrantzia ematen diote, gainontzekoak eta natura errespetatuz, bakoitzaren garapena oso garrantzitsua da, adibidez, erabakiak hartzerako garaian, denek garatu dutela edo nahi dutelako, erabakiak hartzeko gaitasuna eta ardura.

Ekonomikoagoa den arloari erreparatuz, ez dute gaur egungo gizartean erreproduzitzen den kontsumorako beharra hauspotzen, eta kontsumo konpulsibo hori ez dago Lakaben. Ekonomia komuna, bateratua, dute, hau da, lortutako lansari edota diru guztia, komunitatearena da: komunitatean erabakitzen da diru horrekin zer egin. Ez dute etekinik

bilatzen, bizitzen jarraitzeko beharrezkoa den sustengua baizik (hala ere, ez da bizirautea, diru gutxi eduki arren, bizi kalitate ona daukatela diote).

-Zer funtzio betetzen ditu bertan bizi direnentzat?

Alde batetik, bertan bizi diren pertsonen desio bat betetzearen funtzioa betetzen duela uste dut: denak zuten oinarritzat, bizi eredu konkretu bat, zeinetan aurreko galderan aipatutako baloreak oinarri izango zituen, eta beraz, Lakaben bizitzeak, hau eskaintzen die. Bestetik, gaitasun desberdinak eskuratzea egiten die: natura errespetatuz lurra nola landu, etxeak nola eraiki edota ogia nola egin, esaterako. Elkarbizitzak eta horrenbeste pertsonekin harremantzeko gaitasunak eskuratu behar dituzte, konfidantza (bakoitzak bere ardurak betetzean, adibidez) edota asanbladetan parte hartze aktiborako behar diren gaitasunak garatzea.

Bertako emakume batek dio, “tontakeria guztiak burutik kentzeko” baliagarria dela Lakaben, edo modu honetako komunitate batean bizitzea.

-Zeintzuk dira komunitatean bizitzeko modu honi ikusten dizkiozuen onurak eta zailtasunak?

Hasteko, gauzak berrikastearen ingurukoa da. Oso aberasgarria iruditzen zait, aurrerapen teknologiko batzuk (adibidez etxeak berotzeko sistema) eta analogikoagoak diren hainbat metodo uztartzea (ogia egiteko modua, adibidez), bakoitzak dituen abantailak aprobetxatuz. Eta honekin guztiz lotuta, modu osasuntsuago batean bizitzea, adibidez jatekoari dagokionez, bertan landatu eta bildutako produktuak kontsumitzeak, kalitate bat bermatzen dizulako.

Gainera, bertako kideek lortzen dituzte gaitasun espezializatu hoiek oso interesgarriak iruditzen zaizkit. Youtube-n aurkitutako bideo batean, ondorengo esaldia aipatzen da: “Inteligencia colectiva por encima de los talentos personales”, eta oso interesgarria dela iruditzen zait. Bakoitzak gaitasun desberdinak batzuk eduki arren, etengabe ardura desberdinak edukitzeak, nahiz eta batzuk finkoagoak izan, pertsona bera asko aberasten du.

Bizikidetzari dagokionez, gatazkatsuagoa iruditzen zait, adibidez, erabaki oro kontsentsuz eta asanbladan hartu behar izatea. Jende kopurua txikia bada, egingarria da, baina 50 pertsona edo gehiagoren artean, iada konplikatua iruditzen zait.